

Larunbatean hasiko dira lehiarekin, eskualdeko arraunlariak

Eusko Tren eta Eusko Label ligekin hasiko da denboraldia eta Tolosaldeko zortzina arraunlari izango dira; «gogotsu» daudela eta estropadaz estropada ariko direla esan dute // 7

Zaintza taula jarriko du martxan Anoetako Udalak, udalekuen hutsunea betetzeko

Udalekuak ez antolatzea erabaki du, baina, zaintza arloan lan egin nahi duten herritarren eta familien arteko harremana erraztuko du // 5

«Espainiarekiko
elkartasuna
sendotzea da
gure apustua»

PELLO ATXUKARRO
PP-REN HAUTAGAIA

Atxukarrok dio, osasun krisiaren ondorioei aurre egiteko, ekonomian eragina duten tresna guztiak jarri behar direla martxan // 3

**Alderdiek
Tolosaldeko
ospitalea sartu
dute euren
programetan**

Ospitale publiko berria eraikitzea edota bereizmen handiko zentro bat egitea bezalako ideiak daude EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdien asmoetan // 2



IBARRA

AURREKONTUA MOLDATUTA

Aurtengorako aurreikusitakoa baino 850.000 euro gutxiago izango dituela kalkulatu du udalak; alor guztietan murrizketak egin behar izan dituzte, gizarte zerbitzuetan izan ezik, «herritarren ongizatea bermatzea baita helburua» // 6

IRATISAZAR



ORIA  **BEILATOKIA**
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Eskualdeko ospitalea, proposamenen artean

Tolosaldeko osasun zentroari erreferentzia egin diote EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek, euren programetan.

Josu Artutxa Dorronsoro

Uztailaren 12an egingo dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, EAEn. Pasa den ostiralean eman zitzaion hasiera kanpainari, eta horrekin batera, kanpainako ekitaldiak ospatzen ari dira herri askotan, baita eskualdean

ere. Horietan, gainera, euren programak aurkezten ari dira.

Aurtengo proposamenetan badira kontuan hartu beharreko zenbait berrikuntza, batez ere eskualdeari eragiten dietenak. Izan ere, EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiak jakitun dira, azken urteetan Tolosal-

deko osasun sistemaren inguruan izan den eztabaidaz; hori dela eta, guztiek egiten diote erreferentzia eskualdeko osasun zerbitzuari.

EAJ

«Tolosan bereizmen handiko zentro bat eraikitzea» da jeltzaleen nahia, «anbulatorioko espe-

zialitate mediku eta kirurgia guztiak har ditzakeena». Hala-ber, zenbait zerbitzu barne bilduko dituela ere aurreikusten dute: «Kirurgia Handiko Ambulatoriorako ebakuntza gelak eta ekipamenduak, eguneko ospitale mediku-kirurgikoa, eta diagnostiko aurreratuak, batez ere endoskopiak, egiteko baliabide-

ak eta erradiodiagnostikorako ekipamenduak, hala nola, erresonantzia magnetikoa, OTA eta erradiologia konbentzionala».

EH BILDU

Bestalde, «Tolosan ospitale publikoa eraikitzea» nahi du EH Bilduk. Horretarako, baina, beharrezkoa ikusten dute «eskualdeko eragileekin elkarlanean, Tolosaldeko ESI-ak (Erakunde Sanitario Integratuak) eman beharreko osasun arreta adostea».

ELKARREKIN PODEMOS

Azkenik, Elkarrekin Podemosen kasuan, «bereziki» aztertu nahi du Tolosaldeko Asuncion Klinikaren eta Donostiako Ospitale Onkologikoaren arteko itunaren egoera, baita sektore publikoan integratzeko aukera ere. «Lurraldeko tasunagatik bereizitako osasun-arretan dauden desberdintasunak ezabatze, eskualde desegokienetan osasuna indartuko duten ospitale berrien irekiera ebaluatu eta bultzatuko dugu, adibidez, Tolosaldean», adierazi dute.

Gaur egun, Asuncion Klinika da eskualdeko osasun zentro nagusia. ATARIA



«LEHEN EMAKUMEA, AUKERARIK ONENA»

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainaren barruan, EH Bildu alderdiaren ekitaldia izan zen, astelehenean, Ibarako San Bartolome plazan. Bertan izan ziren Oihana Etxebarrieta hondarribiarra eta Erantz Saez de Egilaz beasaindarra. «Euskal Herria eta mundua bizitzen ari diren momentua urgentziazko momentua da, krisi sozial larri baten erdian gaudelako. Horri elkarrekin heltzen diogu, edo bestela, ez dago zer eginik. Norabide aldaketa bat egiten dugu, edo orain arteko egoera berera eramango gaituzte. Izan dezakegun hautagairik onena, lehen lehendakari emakume eta feminista da», aldarrikatu zuten. J.A.

✉ **GUTUNA**

EAJ kanporatzeko ordua da!

EAJ benetan urduri dago, langile klasearen eta gazteriarren mobilizazioak arriskuan jar dezakeelako bere agintea. Eta ez da gutxiagorako. Urtarrilaren 30eko greba orokorraren arrakastaren eta beste hainbat borroka sozialen ondotik oraindik argitu gabe dagoen Zaldibarko hondamendia eta osasun alarman zehar EAJ-ren jardunak piztu duen haserre soziala gehitu zaio.

EAJ-ren «euskal oasia» negozioaren paradisia da. Zerbitzu publikoen pribatizazioan jeltzaileen kargu ohiek maneiatzen duten negozio itzelak hamarkadetan zehar sortu duten ustelkeria sarearen izebergaren punta baino ez dute erakusten. Mundu mailako krisi ekonomiko sakon honetan, murrizketa eta langile klasearen aurkako eraso are gogorragoak egiteko prestatzen ari dira.

EAEk azken legegintzaldi honetan trantsizio garaitik egon diren mobilizazio handienak eza-gutu ditu. Hogeit urtetan egon den greba jarduera handienaren alboan, etengabe bete dituzte kaleak pentsiodunek, borroka feministak, gazteriak aldaketa klimatikoaren aurrean, Katalunia-ko herriaren eta Altsasuko gazteen elkartasunean, edo Eus-

kal Herriaren eta euskal preso- en eskubide demokratikoen alde...

Hori da eskuina erakundeetatik bota eta politika kapitalista guztiak amaitzeko bidea. Beharrezkoa da ezker abertzaleak eta EH Bilduk euskal patronalaren alderdiarekin erabateko konfrontazioa duen politika bat hartzea, bai legebiltzarrean eta baita kalean ere. EAJ-rekin «herri gisako irtenbideak» bilatzeko akordioetara iristeko ilusioak ezin dira eutsi inondik ere. Klaseko irtenbideak behar ditugu.

Ezker Iraultzailetik datorren uztailearen 12an EH Bilduri bozkatzeko deia egiten dugu, helburu argi batekin: EAJ erakundetatik botatzea, euskal eskuinarekin klase kolaborazioa errotik moztea, eta ezkerreko gobernu bat eratzea, politika kapitalistekin hausteko.

Abstentzioak eskuinari baka- rrik egingo dio mesede. Baina badakigu botoa ematea ere ez dela nahikoa. Alternatiba bat eraiki behar da Euskal Herrian, langileen eta gazteen artean programa iraultzaile eta internazio- nalista bat defendatzeko, modu irekian planteatuko duena sozia- lismoaren aldeko borroka, auto- determinazio eskubidearen de- fentsarekin batera.

Kaleko borroka da bidea!


Manu Odriozola

Tolosaldeko Ezker Iraultzailea

«Agintariei egia, zentzutasuna eta leialtasuna eskatzen diet»

PELLO ATXUKARRO PP ALDERDIKO HAUTAGAIA

Atxukarroren iritziz osasun krisiari aurre egiteko, ekonomian eragina duten tresna guztiak martxan jartzea izan beharko luke lehentasuna; gehitu du publikoa izatean baino ematen duen zerbitzuan jarri behar dela arreta



I.T.

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen harira, ATARIA-k bost alderdi nagusietako ordezkariekin elkarrizketak egingo ditu eta 2016ko hauteskundeetako Tolosaldeko emaitzen arabera hurrenkeran argitaratuko ditu; PP, PSE, Elkarrekin Podemos, EAJ eta EH Bildu, alegia. Gipuzkoako PP-ren hautagaien zerrendan, 17. postuan dago Pello Atxukarro (Oiartzun, 1955).

Osasun krisiaren kudeaketaz zer balantze egiten duzue?

Dauzkagun datuekin argi ikusten da kudeaketa txarra egin dutela. Beranduegi hasi ziren neurriak hartzen, eta horren ondorioz hildakoak eta kutsatuak izugarri biderkatu dira. Zaila da ulertzen, esaterako, martxoaren 8an egin ziren manifestazioak nola baimendu zituzten eta herritarrak bertan parte hartzera animatu. Osasun zentroak gainezka ikusi ditugu, helduen zentroetan ere berdin. Bazetorren zerbait zela kontuan hartuta, jorkabidea tamalgarria izan da, eta ondorioak hor daude. Kudeaketa horrek bere ondorioak izan behar ditu, eta norbaitek erantzun egin beharko du.

Jaurilaritzaren azken legealdiko kudeaketaz zer nabarmen-tzen duzue?

Estatutu berria azpimarratuko nuke. Katalunian ikusi dugunagatik, eta lehenago Euskal He-

rrian ere izan zen saiakeragatik, hori nabarmenduko nuke. Ez zaigu batere egokia iruditzen Euskal Herria Espainiatik ateratzeko estatutu berri bat adostea. Gu ez gaude horrekin ados. Uste dugu Euskal Herria Espainia barruan oso ondo dagoela. Komeni zaigu hor egotea, eta geroz eta elkartuago egon hobe. Gure apustua elkartasun hori sendotzea da, eta alderantzizko bidea naturaren kontrakoa iruditzen zaigu. **Errealitate berria nola ikusten duzue?**

Positiboa da beharrezkoa baita gizartean galdu genuen askatasuna irabaztea. Dena den, kontuan hartu behar dugu arriskuak hor jarraitzen duela. Osasuna zaintzeko beharra dagoen bezala, eguneroko lanera bueltatzeko beharra dago. Ekonomiarik ez badago bizitzeko behar ditugun zerbitzuak ezin dira mantendu. Alarma egoera bukatu den hone-tan, eta mugak zabalik daudelarik, kontrolerako neurri hobeak egon beharko lirateke.

Ekonomiari dagokionean, osasun krisiak eragin handia izan du. Zer neurri proposatzen dituzue, eta lehentasuna non jartzen duzue?

Lantokiak martxan jarri eta lanpostuak berreskuratzea da gakoa eta neurriak horretara bideratuta egon behar dute. Aldi berean, osasuna zainduz egin behar da. Europatik laguntza dezente ere espero dugu, eta hori positiboa

izango da. Gure lehentasuna ekonomian eragina duten tresna guztiak martxan jartzean dago. **Euskalgintzan, eta zehatzago izateko, euskal hedabideetan, kezka handia dago, eragina nabaria izan delako, eta diru laguntzei dagokienez, zalan-tza handiak daudelako.**

Guztiok ditugu kezkatzeko arrazoiak. Konfinamendua garaian euskal hedabideen kontsumoa igo dela jakiteak pozten nau. Ez daukagu proposamen zehatzik, hori bai, euskarazko komunika-

«Espainiarekiko elkartasuna sendotzea da gure apustua, geroz eta elkartuago hobe»

bideak beharrezkoak dira euskarak aurrera jarrai dezan. Euskarazko komunikabideek jokatzten duten papera ezin du inork ezta-baidatu, beharrezkoak dira. Horregatik, gobernutik kontuan hartu beharko da zer behar eta arazo dituzten, beti ere, dauden aukeren arabera.

Pentsiodunek kezkatuta ego-teko arrazoiak badituztela uste duzu?

Bai. Estatuak egungo egoeraren ondorioz arazo ekonomikoak baditu, ez nintzateke harrituko pentsioak ukituko balituzte. Gainera, ez da lehendabiziko aldia, Zapaterok ere izoztu baitzituen pentsioak aurreko krisian. Hala

ere, hori jorratzeko dago Toledo-ko Ituna. Bestalde, pentsioena sistema publiko egonkorra izan behar du, eta horretarako beharrezko neurriak hartu behar dira. Agintariei, beraz, exijitu behar zaie norbere pentsioa jasotzea bermatzea. Are gehiago, pentsiodunak gizarteko sektore zaurgarrienetakoak direla kontuan hartuta.

Tolosaldeko osasun sistema eztabaidarako gai izan da azken urteetan. Zer da zuek proposatzen duzuen?

Gainerako alderdien planteamenduak ezkerreko ikuspegitik joan dira, batez ere. Publikotasunaren alde egin dute. Gu ez gaude publikotasunaren kontra, baina, publikoa izanagatik ez du bermatzen zerbitzua hobe izango denik. Egia da Tolosaldea dela klinika publikoa ez duen eskualde bakarra, baina, ni ez nau itsutzen publikoa izateak edo ez izateak. Hori bai, publikoari bezala, gainerakoei ere, eta kasu honetan Asuncion klinikari, eskatu behar zaio zerbitzuak bermatu behar dituela beste eskualdeetan bezala. Dohainik eta kalitatezko zerbitzua eskaini behar du. Guk hori horrela izan dadin kontrolak egon behar dutela exijitzen dugu jaurilaritzan. Badakigu egiten direla kontrolak, emaitzak hor daude, eta zuzenketak ere bidaltzen zaizkio klinikari.

Ingurumenari begira pandemiaren ondorioz kutsadura

murritzitu dela ere ikusi dugu. Alor honetan zeri ematen diozue lehentasuna?

Ingurumenari begira lanean jarraitu beharra dago, eta gaur egun guztiok ematen diogu garrantzia.

Zein alderdirekin duzue hauteskundearen ostean itunak egiteko lehentasuna?

Ez dugu lehentasunik une honetan. Ekonomiari begira EAJ-tik gertuago gaude ezkerreko alderdiekin baino, beraz alde horretatik, errazago litzazuke beraiekin adostasunera iristea. Gobernatzaileei egia, zentzutasuna eta leialtasuna eskatzen diet nik, hori funtsezkoa da niretzat.

Gainerako alderdiak nola deskribatuko zenituzke?

EH Bildurekin desberdintasun handiak ditugu. ETA bukatu zen, prozesua amaitu zen, baina, ez dago erabat bukatua. Oraindik pausoak emateko geratzen zaizkiola iruditzen zait. Podemos ezker ezkerreko komunistek, ez didate batere konfiantzarik ematen, beraien proposamenak ez direlako batere errealistak. PSOE-rekin konfiantza eza handia da, batez ere, Sanchez dagoenetik. EAJ alderdi serioa iruditzen zait beti eta beraiekin adostasunetara iristeko erraztasun handiagoak genituela pentsatu izan dut, baina, beraien leialtasun faltak eta nazionalismoari buruz dugun iritziak urrundu egin gaituzte.

Gaurko ibilbidea egiteko aldapa gogorak igo behar dira; Tolosatik Berrobira egingo dugu lehenik, eta handik Elduainera; Berastegira igotzeko 150 metroko desnibela gainditu behar da

Aldapa gogorak lautada zabaleraino

Joxemi Salzar Berastegi

Zer moduz doaz bizikleta ibilaldiak eskualdea ezagutzeko? Ondo ari al zarete burutzen? Bada prestakuntza guztiak beharko dituzue txango hau egiteko, eskualdeko punturik altuenetakora joatea tokatzen baita: Berastegi (406 m).

Aldapa gogorak izango dira bidean eta hori ahaztu egiten bazaizue, zuen sufrikarioa gogoraraziko dizuten % 8ko aldapa adierazten duten seinaleak topatuko dituzue errepide bazterrean.

BERROBIRA


Tolosatik Ibarrarako paseotxoak izango dugu hasteko, lau samarra. GI-2130 errepidea jarraituz aldapa leuna izango dugu ondorengo lau kilometroetan Berrobiraino.

Txomin Garmendia bertsolariaren herrian eskola, udaletxea, San Andres eliza, San Sebastian ermita eta Urreburu frontoia ikus daitezke.

Ondoren dator etapa honetako aldaparik gogorrena: Berrobitik Elduainera. Ehun metro eskaseko desnibela gaindituko dugu bi kilometro eta erdietan, baina gogorra egiten da. Elduai-



Berastegiko plazara gerturatzeko aitzakia eskaintzen du gaurko ibilbidea. J.S.



da. Tourseko San Martin parroikia-eliza ere berezia du: herritik aparte, kilometro erdi batera edo, eta herriari bizkarra emanez gainera, aterpe ederrarekin. Udaletxea ere ez da nolanahikoa, jauregia dirudi.

BERASTEGI

Larreko San Lorentzo, San Sebastian eta San Anton baselizak, Jaundegi dorretxea, eskola, Ipuliño pilotalekua eta beste hainbat etxe dotore ere aurki daitezke bertan.

Jose Antonio Muñagorri politikaria, Txomin Jakakortajare-

Berrobitik Elduainera joateko dagoen aldapa da gogorrena; bi kilometro eta erdi daude

Elduaindik Berastegira hiru kilometro inguru daude eta 150 metroko desnibela

Itzulerakoan, Elduain pasata eskuinera egin eta Eldua ezagutu daiteke

na idazlea eta Jesus Altuna antropologoa bezalako pertsonaia ospetsuak eman ditu herri honek.

Behin herria bisitatuta, itzultzeko bide bera hartu behar da, baina, oraingoan errazagoa egingo zaigu, dena aldapa behe-izango baita. Hori bai, kontuz ibili behar da bihurgune itxietan.

Elduain pasata, eskuinera zementuzko bidexka bat hartuta Berastegiko auzo bat bisita dezakegu: Eldua.

Aldapa leuna dago kilometro erdian, Berastegira igotzerakoan hartu dugun altuerari esker. Eliza eta plaza ikusita, beste bide batetik (hau asfaltatua) jaitsi gaitzke berriro GI-2130 errepidera, Munksjo paper-fabrikaren parera.

Handik aurrera igoerarako erabilitako bide berari jarraituko diogu: Berrobi, Ibarra eta Tolosara.

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarrizketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea

Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

- Whatsapp bidez: **687 410 033**
- Abestiak eskaini, zoriondu, albisteen berri eman, proposamenak egin, kexak....

nen eskualdeko frontoirik zaharrenetakoa topatuko dugu, 1879koa.

Migel Soroa pilotari txapelduna bertan hasiko zen, noski, eta baita, beranduago, Zeberio anaia erremontistak ere. Manuel Santa Kruz apaiz-gerrilaria izan zen beste seme ospetsu bat. Santa Katalina parroikia, Santa Kruz basiliza eta udaletxea ere aipatzekoak dira toki esanguratsuen artean.

Elduaindik Berastegira hiru kilometro baino gehixeago ditugu eta 150 metroko desnibela, baina niri behintzat aurrekoa baina samurragoa egin zitzaidan.

Berastegi eskualdeko herri altuenetakoa dela esan dugu lehenago. Baita dotoreenetakoa ere. Lautada zabalean kokatzen

Zaintza taula jarri du martxan Anoetako Udalak

Udalak zaintza arloan lan egin nahi duten herritarren eta familien arteko harremana erraztuko du taularekin

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Udalak udalekuak ez antolatzea erabaki du aurten, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta. «Ezin dugu bermatu segurtasun neurriak zehatz-mehatz beteko ditugunik, batez ere, orain arte udaleku irekietan izan duten formatua kon-tuan izanik», aipatu du Iratxe Olano udaleko gazteria susper-tzaileak.

Udala jakitun da erabakiak eragina izango duela haurren-gan, nerabeengan, udalekuetan lan egin nahi zuten pertsonen-gan eta familiengan. «Benetan sentitzen dugu», aipatu du Olano. Hala ere, zaintza arloan sor daitezkeen egoerei irtenbidea emateko proposamena garatu dute gazteria sailetik: zaintza taula. «Helburu nagusia, zaintza arloan lan egin nahi duten herri-tarren eta familien arteko harre-mana erraztea da». Zaintzaren arloan lan egin nahi duten herri-tar guztiek parte har dezakete. Udaletik pasa beharko dute ho-

rretarako eta euren datuak eman (izen-abizenak, telefonoa eta e-posta), datu horiek publikatzeko baimena ematen duela adieraz-ten duen dokumentua sinatzearekin batera. Ondoren, informa-zioa udaletxeko saihests batean dagoen iragarki taulan publika-tuko dute.

ESKAINZA ZABALA

Haur eta nerabeak udalekurik gabe gelditu dira Anoetan, baina Gazteria sailak beraiei zuzendu-tako eskaintza zabala prestatu du.

Ikastaro edo tailerretan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Gaztelekuan 11:00etatik 13:00etara edota udaleko webgunean dagoen izen-emate orria bete eta [gazte-ria@anoeta.eus](mailto:gazteria@anoeta.eus) helbide elektro-nikora bidali beharko dute.

Uztailaren 6an hasi eta 31 bi-tarte izango da eskaintza, astele-henetik ostegunera. Goizez edo arratsalde izango dira. Izen emateak, uztailearen 3a, ostirala, baino lehen egin behar dira.

Udalekuak egingo dituzte Asteasun, egokituta

Erredakzioa Asteasu

Asteasuko Udalak gurasoekin egindako bilera baten ondoren adostu zuen aurten ere udalekuak egitea eta osasun agintariek emandako segurtasun neu-rrien arabera antolatzea. Besteak beste, guraso, tutore edo ardura-dunek haurra lagunduko dute egokitu zaion eraikinera, goize-ro. Sarrera eta irteera mailakatu egingo da. Hurrei tenperatura hartuko zaie etxean, eta sukarra izanez gero ezingo dute udalekuetara joan. Gainera, gel hidro-alkoholikoarekin eskuak garbi-tuko dituzte eta derrigorrezkoa izango da maskara bi metroko distantzia ezin bada gorde.

Familiei «zuhurtzia handiz» jokatzeko eskatu diete, eta etxean norbait edo haurra gaixotuz gero, ahalik eta lasterren berri emateko, protokoloa lehenbaile-hen bete ahal izateko. Asteasun erroldatutako edota bertara uda pasatzera etortzen diren 3 eta 12 urte arteko umeek parte hartuko dute, 9 hurrez osatutako taldeetan banatuta.

Traste zaharren bilketa ongi erabiltzeko deia, udaletik

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak azken asteetan Villabonako traste zaharren bilketa zerbitzuaren erabilera desegokia egiten ari direla herritarrek salatu du. «Edozein egun eta ordutan ateratzen dituzte hondakinak kalera», esan dute. Hala, traste zaharren bilketara zer atera daitezkeen gogorazi dute udaletik: altzariak, koltxoak, linea zuriko etxe tresna elektrikoak (hozgailuak, garbigailuak...) eta linea gris-mar-roiko etxetresna elektrikoak (telebista, ordenagailu...). Horiek ateratzeko eguna asteazkena da, eta 20:00etatik 22:00etara atera beharko dira. Tolosaldeko man-komunitateari jakinarazi behar-ko zaio 943 67 62 16 edo web orri-ko eskaera orria betetz. Bestetik, obra hondakinak, pneumatikoak, pintura poteak edo hondakin arriskutsuak Tolosako edo Andoaingo Garbigunera eraman behar direla adierazi dute.



ARZALLUSTARREN ESKUTIK, SARI BIKOITZA

Otaño Bertsopaper Lehiaketa irabazi dute Amezketa Zumaia eskolako LH6-ko ikasleek. Saria noren eskutik jaso erabakitzerakoan, Amets eta Maddalen Arzallus aukeratu zituzten. Ostiralean izan ziren bi bertsolariak Amezketa. Ikasle-en galdera guztiak erantzuteaz gain, bertsotan ere jarri zituzten. ASIERIMAZ



**HIZKUNTZA GUZTIETAKO
IKASTARO TRINKOAK**

**CAMBRIDGE ZIURTAGIRIEN
PRESTAKUNTZA**

**LINGUASKILL ETXETIK
AZTERKETA BERRIAK**

**4-11 URTEKO HAURRENTZAKO
ESKAINZA BEREZIA**

Beraien maila finkatu eta hurrengo osorik gainditu ahalko dute)

TOLOSA

Martin Jose Iraola, 8 3. esk. - Tel.: 943 67 00 52
Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel.: 943 67 47 33
Nafarroa etorbidea, 12 solairuartera - Tel.: 943 67 47 33
Pablo Gorosabel kalea, 40 behe - Tel.: 943 65 23 72

ALEGIA

San Juan, 46 1. esk. - Tel.: 943 65 57 26

✉ elduaien@elduaien.com

www.elduaien.com

Aurrekontuan aldaketak egin ditu Ibarako Udalak

Aurreikusitakoa baino 850.000 euro gutxiagorekin egin beharko dio aurre udalak urteari; gizarte zerbitzuetan murrizketarik ez egitea erabaki dute

Irati Saizar Artola Ibarra

Udalen Finantzaketarako Foru Funtsa %20 murriztea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak, beraz, 2020ko aurrekontua «erabat mugatu» beharrean ikusi da Ibarako Udala. Puntuz puntu eta sailez sail begiratu dute aurrekontua, eta alor guztietan murrizketak egin behar izan dituztela azaldu du Igor Zapirain alkateak, gizarte zerbitzuetan izan ezik. Aurreikusita zeuden hainbat egitasmo bertan behera utzi behar izan dituzte.

Egungo egoeran herritarren ongizatea bermatzea helburu izanik, gizarte zerbitzuetako partidak mantentzea erabaki dute, «horretan ez dugu inolako zantzarik izan». Gainera, alkateak azaldu duenez, seguruenik diru kantitate gehiago bideratu beharko dutela aurreikusi dute, «beharra izango dela uste dugu».

Bestelako alor batzuk ukitu behar izan dituzte murrizketak egiteko. Besteak beste, udalak herriko eragile ezberdinei eman ohi dizkien diru laguntzak %15 jaitsi dituzte: «Saiatu gara ahalik eta gutxien jaisten, baina egin beharrean ikusi gara, diru asko baitzen, eta bestela ez ginen iristen».

Horrez gain, aurtengo inbertsio nagusienetako bat ere bertan behera utzi behar izan dute, momentuz: Belabieta kiroldegiko estalpea berritu nahi zuten, baina «ezinezkoa» dela ikusi



Bizi Nahi elkarteko tabernan obra lanak egingo dituzte. I. SAIZAR

dute. «Gipuzkoako Foru Aldunditik diru laguntza bat iritsi behar zitzaigun horretarako, baina eten egin dituzte laguntzak, eta kasu honetan obra horrek udalarentzat 400.000 euro inguruko gastu bat suposatzen zuen; aurtengo egingo dugu egin».

Hainbat konturekin, ordea, aurrera egiteko erabakia hartu dute. Herri sarrera txukuntzeko obra lanak esleituta zeudela azaldu dute, eta horrekin aurrera egingo dutela esan du Zapirainek. Seinalizazioak sinplifikatu eta edukiontzi nahiz barandak txukuntzea da asmoa. Horrez gain, Bizi Nahi elkarteko tabernan obra egin nahi dute, txukundu eta berritzeko. «Proiektu hori mantendu egin nahi izan dugu,

izan ere, inbertsio bat bezala ikusten dugu hirugarren adinekoei laguntzeko», zehaztu du alkateak.

Ingurumenaren aldetik ere partida zati bat mantendu egin nahi izan dute. Energia berriztagarrien aldeko apustuarekin jarraitzeko ideia erakutsi dute. Kiroldegiko estalpe berrian, eguzki panelak jartzea zen hasiera bateko asmoa, baina egingo ez denez, pilotalekuaren gainean jarriko dituzte hainbat panel: «Panel gutxiago izango dira, baina energia berriztagarrien aldeko pauso bat behintzat eman nahi dugu».

FESTAK, BERTAN BEHERA

San Bartolome festak bertan behera uzteko erabakia hartu du

aurtengo festa batzordeak. Horrek, udalaren aurrekontuan ere badu bere eragina. 68.000 euro inguru bideratzen dituzte festetara, eta 50.000 euro murrizteko erabakia hartu dute. Festa batzordearekin irailan berriro elkartuko direla esan du Zapirainek, eta pandemiak zein norabide duen aztertu ondoren, urte amaierara bitarte ekimen txiki batzuk egitea dela asmoa aurreratu du, bertako festa batzordearekin adostuta.

Partida ezberdinetan murrizketak eginagatik, sarreretan ere hutsuneak nabarmenak izan direla dio alkateak. Egoerak hala ekarrita, herriko merkatariei diru laguntzak eman dizkiete aurrera egin ahal izateko, TAO zerbitzua ere etenda eduki dute eta hortik jasotzen dituzten sarrerak ere ez zaizkie iritsi, eta industrietan merkatariek zaborragatik ordaintzen duten tasa ere jaitea pentsatzen ari dira; etxebizitzek daukaten tasa bera jartzeko asmoa dutela esan du.

Alde guztietatik murrizketak egin behar izan dituzte, beraz. «Foru Funtsa %20an murrizteak 650.000 euro gutxiago jasoko ditugula esan nahi du, baina horri jasoko ez ditugun beste hainbat sarrera gehitu behar zaizkio, besteak beste, merkatarien diru laguntzak, TAO zerbitzuagatik jasotzen duguna, edota zaborraren tasak; guztira 850.000 euro inguruko murrizketa suposatzen du horrek aurrekontuan».

Gaurtik aurrera organikoaren eta errefusaren edukiontziak itxi egingo dira

Erredakzioa Ibarra

Larrialdi egoeran, osasun neurriak tarteko, organikoaren eta errefusaren edukiontziak zabalik uzteko erabakia hartu zuen Ibarako Udalak. Gaurtik aurrera, ordea, itxita egongo dira, eta herritarrek txartela erabili beharko dute edukiontziak irekitzeko.

Tolosaldeko Mankomunitateak mantentze lanak egiten jarraituko du, eta pixkana joango dira herriko edukiontzi guztiak ixten.

Ibarako Udaletik birziklatzen jarraitu dezatela eskatu diete herritarrei, eta bizilagunekin zein herriarekin arduraz jokatu eta zabor poltsak edukiontzietan sartzeko, ez lurtean uzteko.

Udako ordutegia izango du kultur etxeak uda osoan

Erredakzioa Ibarra

Uda iristearekin batera, Ibarako kultur etxea prest da udako ordutegiari ekiteko. Astelehenetik ostiralera zabalik izango da, baina goizez soilik eskainiko dute zerbitzua.

Astelehenetik ostiralera bitartean 09:30etik 14:00etara zabalduko ditu ateak, eta asteazkenetan 09:30etik 16:00etara bitarteko zerbitzua eskainiko dute.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa

Larunbatean jarriko dira mar-txan Eusko Tren eta Eusko Label arraun ligak. Emakumezkoen goi mailako Eusko Tren Ligako lau traineruetan eskualdeko arraunlariak izango dira, guztira zortzi. Arraun Lagunaken Maider Zumeta Ibartarra eta Ane Sanchez anoetarra, biak Tolosaldea trainerutik atera direnak. Donostiarran Nerea Lopez tolosarrak eta Naroa Urkola anoetarrak jarraitzen dute, eta Ioana Alijostes eta Irati Larrañaga tolosarrak gehitu zaizkie, urtebetez arraunean ibili gabe egon ondoren. Hondarribian Nerea Perez tolosarrak jarraitzen du, eta Orión bere bidea egiten jarraituko du Ohiane Iraola tolosarrak.

Gizonezkoen Eusko Label Ligan hainbat aldaketa izan dira, eta aurreko eskualdeko zortzi arraunlari egongo dira. Donostiarran lehen urtea dute Joseba Larrarte billabonatarrak, Zierbenatik atera dena, eta Endika Lopez tolosarrak, Hondarribiatik joan dena. Hondarribian Jon Lizarralde tolosarrak jarraitzen du. Ondarroan Mikel Lasa tolosarra, San Pedrotik aterata, eta Eneko Zabala adunarra daude, azken honek Kaikutik baja emanda. Zarautz iaz igo zen goiko ligara, eta bertan daude Ion Jauregi eta Xabier Ormazabal tolosarrak eta Martin Rekondo larrauldarra. Bi baja ere izan dira iaztik: Orión ze goen Ugaitz Mendizabal irurarra, aurreko ez dena arraunean lehiatuko, eta Garikoitz Lopetegi billabonatarra, Zierbena utzi eta KAE 1 ligako San Juanera joan dena.

Gogoz daude Ohiane Iraola eta Jon Lizarralde arraunlariak aste-burua iristeko. Coruña bi estropada jokatu dituzte, larunbatean bat eta igandean bestea. «Berez garai hauetan gogoz egoten gara, baina aurreko gogo bi-koitzarekin gaude», esan du Iraolak. Lizarralde gaineratu duenez, «etxe barruan edo garajea sartuta egon ondoren, orain askatasunarekin zuri gehien gustatzen zaizun kirola egitea... Nire kasuan behintzat gogoz nago hasteko».

Orión traineruko arraunlariak konfinamendua modu «arraroan» eraman duela esan du: «Hasieran, ondo asimilatu gabe, iruditzen zaizu ez zarela errealitate bat bizitzen ari. Ematen zuen pelikula batean sartuta zeundela. Denbora aurrera joan heinean jabetu nintzen ez zela horrela, eta etxean entrenatu behar duzula, eta baldintza horiekin tarteka oso gogorra egin da. Baina, azke-

Estropaden ordua iritsi da

Arraun denboraldia hasiko da Eusko Tren eta Eusko Label ligekin, larunbatean; eskualdeko zortzina arraunlari izango dira lehen liga bakoitzean



Oriónko trainerua, martxoan. Ohiane Iraola aurrekalari postuan, irudiaren ezkerrean. JOXE MARI OLASAGASTI



Hondarribiako trainerua, martxoan. Jon Lizarralde hirugarrena da, eskuin aldean, kapela atzera jarrita duena. LUIS AZPEITIA

nean, esan daiteke nahiko ondo eraman dudala».

Hondarribiako arraunlariak denboraldia beranduago hasi zuen, auto istripu bat izan ondoren. «Gero konfinamenduak denboraldi-aurreko parte garrantzitsuena kendu digu, hor lantzen baitugu teknika», esan du Lizarralde. «Tonu fisikoa mantendu dugu, baina alor teknikoan galera izan dugu. Halere, urte asko jarraian batera gauden taldea gara eta blokea mantendu dugu».

«ESTROPADAZ ESTROPADA»

Taldekieekin berriro elkartzea «nahiko xelebrea» izan zela dio Iraolak: «Nahiz eta hiru hilabete elkarrekin arraunean aritu gabe

egon, iruditzen zitzaigun duela aste-bete elkartu ginela uretara joateko. Hori bai, urduri ere bageunden». Lizarralde gogora ekarri du eskuak eta ipurdi masailak berriro ere egokitu behar izan dituztela: «Eskuak ohitu gabe maskurrak joan egiten zaizkizu, eta azkenean eskuan eta ipurdian zauri batzuekin izan gara, baina dagoeneko maskurrak eginda dauzkagu».

Taldea gogotsu eta indartsu ikusten du Oriónko arraunlariak. Egunetik egunera euren buru-rengan konfiantza handiagoa dutela dio, eta hori dela garrantzitsuena. Eusko Tren Liga nola joango den ez dakielako dio Iraolak: «Ez dakit beste taldeak nola dauden. Guk ditugun azkeneko

erreferentziak neguko estropadetakoa dira. Azkeneko martxo hasieran jokatu genuen, eta ez dakigu besteak nola egongo diren». Taldeen osaketan izan den aldaketa handiena Donostiara traineruan izan da, lehen San Juanen aritzen ziren zenbait arraunlari bertara joan direlako, tartean Alijostes eta Larrañaga tolosarrak. «Gehitu den taldetxo horrek Donostiarrari beste puntu bat emango dio», esan du Iraolak, «gehienbat eskarmentu handiko arraunlariak direlako eta taldea eramateko gaitasun hori dutela iruditzen zait». Orión irabazi zuen iaz liga eta baita Kontxako Bandera ere. «Aurtengo egoera dela eta, ez dugu iaz gertatukoari begira egin nahi. Gu

ESKUALDEKO ARRAUNLARIAK

Eusko Tren Liga

Arraun Lagunak. Maider Zumeta (Ibarra) eta Ane Sanchez (Anoeta).
Donostiarrak. Olatz Lopez (Tolosa), Naroa Urkola (Anoeta), Ioana Alijostes (Tolosa) eta Irati Larrañaga (Tolosa).
Hondarribiak. Nerea Perez (Tolosa).
Orión. Ohiane Iraola (Tolosa).

Eusko Label Liga

Donostiarrak. Joseba Larrarte (Villabona) eta Endika Lopez (Tolosa).
Hondarribiak. Jon Lizarralde (Tolosa).
Ondarroak. Mikel Lasa (Tolosa) eta Eneko Zabala (Aduna).
Zarautz. Ion Jauregi (Tolosa), Xabier Ormazabal (Tolosa) eta Martin Rekondo (Larraul).

EGUTEGIA

Uztailak 4. Coruña.
Uztailak 5. Coruña.
Uztailak 11. Donostia.
Uztailak 12. Zierbena.
Uztailak 18. Getxo.
Uztailak 19. Orión.
Uztailak 25. Bilbo.
Uztailak 26. Lekeitio.
Abuztuak 8. Hondarribia.
Abuztuak 9. Ondarroa.
Abuztuak 15. Zarautz.
Abuztuak 16. Zarautz.
Abuztuak 22. Santurtzi.
Abuztuak 23. Portugalete eta Sestao.
Abuztuak 29. Ares.
Abuztuak 30. Boiro.
Irailak 19. Bermeo.
Irailak 20. Portugalete.

estropadaz estropada joango gara», esan du Iraolak.

Bere trainerua ondo dagoela dio Hondarribiako arraunlariak. Eusko Label Ligan aurreneko postuetan iazko berak izango direla uste du Lizarralde: «Inori mespretxurik egin gabe, nire us-tez Orión, Santurtzi eta Zierbena izango ditugu aurkari nagusiak. Emozio handiko liga izango da eta espero dugu gure aldera erortzea». Iaz liga Orión irabazi zuen eta Hondarribiak eraman zuen Kontxako Bandera. «De-non ilusioa da liga eta Kontxa irabaztea. Estropadaz estropada joango gara, eta Kontxako Bandera iristerakoan bereziki pres-tatuko dugu».

Koronabirusaren aurkako pro-tokoloarengatik estropadetan neurri bereziak hartuko dituzte arraunlariak. Horrek ere zaleei eragin ei die, eta giroa hotzagoa izan daiteke. «Arraroa egingo zaigu, baina lehiatzeko grina mantenduko dugu», dio Iraolak.



ASTEAZKENA, 2020KO UZTAILAK 1
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ZORION AGURRAK



Zorionak Aitor!

Lizartzatik, senide eta lagunentzako partetik, zorionak eta urte askotarako Aitor!
Maitasun mugarik izan ez dezan, osasuna eta askatasuna.
Denak Etxera!

ASTEAZKENA 01

AGENDA

Deialdiak

Asteasu. Igerilekuaren irekiera, 11:00etan. Aurten eguneko sarrera-rik ez da izango eta soilik abonatuak erabili ahal izango dute, txandaka; erdira jaitsi dute edukiera eta taberna zerbitzurik ez da izango.

Tolosa. 22. Amaroako Antzerki Astea: 17:30ean, Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadoren Kontukontzertua; 20:00etan, Bea Larrañaga-ekin Aire Hemendik.

Tolosa. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde kanpaina. EH Bilduren ekitaldi nazionala, Trianguloa plazan, 19:00etan. Maddalen Iriartek eta Nerea Kortajarenak hartuko dute parte.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Eguraldia Iker Ibarluzearekin, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa Migel Zeberio orkestra zuzendariari, Urmuga ekimenaren inguruan

14:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

11:00. Martaren eskulanak

11:30. Gaurkoan Tolosaldeko

12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!

17:00. Hiri baratzea

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Urrutiajunbe

22:30. Errezeta beganoak

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro nahasia eta freskoagoa. Goizaldean zaparrada hondarren bat izango den arren, arratsaldeko lehen orduetara arte giro lasaia izango da. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera hodeitza trinkotu eta arratsalde erditik aurrera euri txiki moduan zaparradaren bat edo beste izango da. Haizeak ipar-mendebaldetik bizi joko du eta termometroak ez dira 22-23 gradutik pasako.

Bihar. Giro kaxkarra izango dugu. Fronte batek eta ipar-mendebaldeko haize biziak giro estalia eta freskoa ekarriko digute. Euri zaparradak izango ditugu egun osoz. Ez dira zaparrada indartsuak izango, baina egun guztian zehar botako du euria. Tenperaturak nabarmen egingo du behera eta maximoa ez dira 17 eta 18 gradu artetik pasako.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.info
San Esteban 20

Tolosa

www.ataria.info · 107.6 fm · 105.0 fm



zozketak

Atarikideentzat kamixeta eta bisita bat ditugu



Zatzaizkiten kamixeta eta Hernialdeko serigrafia-tailerrera bisita gidatu bat.

Tailerra ezagutu, serigrafia eta lan teknika ezberdinak ikusi, parte hartu, probatu eta kamiseta eta bestelako produktuak nola gauzatzen diren bertatik ikusteko aukera paregabea.

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus** (Kamixetaren neurria eta kolorea beltza/txuria aukeran, rabilgarritasunaren arabera. Bisita gidaturako eguna zehaztu beharrekoa.)